


Lau emakumetik batek (% 25) uste du enplegua gal dezakeela 2014an

Emakume gazteen artean, ehuneko hori % 43raino doa

Martxoaren 8a [Emakumearen Nazioarteko Eguna](#) dela-eta, lan-merkatuari buruz emakumeek eta gizonak dituzten aurreikuspenen arteko aldeak aztertu ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#). Datuok otsailean argitaratutako [Aurrera Begira / Mirando al futuro](#) azterlanaren ustiapen berrietatik datoz.

Euskadin lan egiten duten lau emakumetik batek (% 25) uste du urtebeteko epean enplegua galduko duela, seguruenik edo nahiko seguru. Gizon okupatuen kasuan, urtebetean enplegua galtzeko arriskua nabari dutenen portzentajea % 17 da.


Aurreko datuak Euskadiko 16 eta 64 urte bitarteko biztanleria okupatu osoari dagozkio. Arreta 16 eta 29 urte bitarteko gazteengan jartzen badugu, enplegua galtzeko arriskuaren beldurra zabalduago dago gazteengan biztanleria okupatu osoan baino, eta gizonen eta emakumeen arteko aldeak are handiagoak dira: emakume gazte okupatuen % 43k uste dute enplegua urtebetean galduko dutela, seguruenik edo nahiko seguru; lana duten gizon gazteen artean, portzentaje hori % 32 da.



Emakumeak, hortaz, ahulago sentitzen dira gizonak baino, egungo krisi ekonomikoan eta enplegu-suntsiketa egoeran. Horri gaineratzen badiogu gazteak babesgabeago sentitzen direla biztanleria nagusiagoa baino, zera ondoriozta daiteke: emakume gazteek ahulezia bikoitza jasaten dutela, emakumeak izateagatik, batetik, eta gazteak izateagatik, bestetik.

Langabeek urtebeteko epean enplegua aurkitzeko aurreikuspeni dagokienez, ez dago alde handirik sexuaren arabera: 16 eta 64 urte bitarteko gizon langabeen % 39k oso edo nahiko seguru ikusten dute aukera hori, bai eta emakume langabeen % 37k ere.

Gazteen artean, ordea, emakumeak baikorrak dira gizonak baino, enplegua aurkitzeko aukerei dagokienez. Hain zuzen ere, 16 eta 29 urte bitarteko emakume langabeen % 57k uste dute enplegua seguruenik edo nahiko seguru aurkituko dutela urtebetean. Gizon gazte langabeen % 51ek uste dute hori.



Hortaz, ikus dezakegunez, emakume gazte okupatu gehiagok uste dute enplegua galduko dutela gizon gazte okupatuak baino, eta, aldi berean, emakume langabeek egoera berean dauden gizonen baino konfiantza handiagoa dute enplegua aurkitzeko. Zeri zor zaio emakume eta gizon langabeen artean dagoen alde hori?

Langabezian dauden emakumeek prestakuntza akademiko handiagoa dute, eta, hori dela-eta, konfiantza handiagoa dute gizonen baino enplegua aurkitzeko dituzten gaitasunetan: 16 eta 29 urte bitarteko emakume langabeen % 83k bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak osatu dituzte; adin-talde bereko gizon langabeen % 75ek bezala.

Gazte okupatuei dagokienez, ez dago alde esanguratsurik emakume eta gizon gazteen ikasketa-mailari dagokionez.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

